

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Urduñako Udala****Zerga-ordenantzaren aldaketaren behin behineko onaspena**

Urduñako Osoko Bilkurak 2019ko urriaren 30ean izandako lan-saioan honako Udal Ordenantza hauek aldatzea onetsi zuen:

- E) Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzeko zerga-ordenantza.
- F) Zerbitzu publikoak eskaintzeagatiko eta administrazio jarduerak burutzeagatiko tasak araupetzen dituen ordenantza:
  - IV. Hirigintza-lizentziak eta exekuzio-aginduak.

Azkenean behin betiko aldaketarik egonez gero, aipatutako udal ordenantza horien aldaketa 2020ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Hori jakitera ematen da zertarako eta, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, 30 eguneko epean, iragarri hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, interesatuek espedientea aztertu ahal izan dezaten, eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu.

Adierazitako erakustaldi publiko hori igarota, eta inolako erreklamaziorik aurkeztu ez bada, ulertuko da behin betiko onartu dela gorago aipatu behin-behineko erabakia.

Urduñan, 2019ko urriaren 31n.—Alkatea, Itziar Biguri Ugarte